


ITSASONDOKO PERRETXIKOAK I.ARGAZKI LEHIAKETA



Argazki lehiaketan parte hartzeko oinarriak

BABESLEAK

Itsasondoko Udala, "Itsasondoko baso autoktonoa kontserbatu eta bere garrantzia nabarmentzea" proiektuaren barruan dago.

GAIA

Itsasondoko perretxikoak

LANAK

Aurkeztuko dira 3 argazki partaideko, gehienez.

Argazki guztiak egileak berak eginak izango dira erabat, hau da, ezin izango dute berea ez den argazkirik aurkeztu.

Aurkeztutako argazkiek ezin izango dute inolako identifikaziorik eraman ezta ur-markarik ere.

Lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lanek beste lehiaketaren batean saritu gabeak izan behar dute.

FORMATUA

JPG formatuko artxiboak.

200 ppp.

Alderik luzeena 3000 pixelekoa izango da.

Artxibo bakoitzaren tamaina 5 mega gehienez.

Epaimahaikideek "Adobe RGB 1998" koloregunean ikusiko dituzte argazkiak.

Artxiboaren izena argazkiaren zenbakiarekin hasiko da eta ondoren, izenburua jarraituko du.

Adibidez: 1_egunsentia.jpg

PARTEHARTZAILEAK

Nahi duten guztiek parte har dezakete argazki lehiaketa honetan.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 10an, igandea, amaituko da.

NORA BIDALI ETA ARGIBIDEAK

argazkiak@itsasondo.eus

Parte hartzea dohainik da.

Internetez bakarrik egin daiteke aipatutako helbidera bidalita.

SARIAK:

Lehen saria: **FOTO ORDIZIA** dendan 30*40 ampliazioa egurrean (foto panel)

Bigarren saria: **FOTO ALZURI**, BEASAIN 20*30 ampliazioa egurrean (foto panel)

Irabazle bakoitzak sari bakar bat har dezake.


Argazki saridunak kulturgunean ikusgai egongo dira.

SARI BANAKETAREN EKITALDIA

2019ko azaroaren 15an.

Bidali: argazkiak@itsasondo.eus
Argazkiak bidaltzeko epea: Azaroak 10 arte

ITSASONDOKO PERRETXIKOAK I.ARGAZKI LEHIAKETA



Argazki lehiaketan parte hartzeko oinarriak

EPAIMAHAIA

Lanen aukeraketa eta sarien banaketa epaimahai baten proposamenaren arabera egingo dira.

- Epaimahaiburua: Itsasondoko Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.
- Idazkaria: Kultura eta Gazteria sailaren koordinatzailea edo berak eskuordetutakoa.
- Epaimahaikideak: Mikologian aritzen diren 2 pertsona.

Epaimahaiak, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, ondoko egoera hauetako edozeinetan dauden lanak deskalifikatu ahal izango ditu:

- Zalantzazko egiletza dutenak.
- Pertsonen duintasunaren aurka egiten dutenak.
- Beste lan batzuen plagiotzat hartzen direnak eta, halakotzat hartu ez arren, imitaziotzat jotzen direnak edo beste lan batzuetan inspiratuta daudenak.

Gainera, aipatutako lanen oso antzekoak direnen kasuan, eta epaimahaiak ezaugarri horien berri izanik, epaimahakideek erabakitzen dutenean aurkeztutako lanek ez dutela originaltasun-meriturik.

Zehaztutako ezaugarriak betetzen ez dituzten argazkiak ez dira erakusketan jarriko eta ez dute lehiaketan parte hartuko.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Era berean, epaimahaia bera arduratuko da oinarri hauetaz sor daitezkeen zalantza, ustekabe eta interpretazio oro argitzeaz, epaimahaiaren irizpidea gailenduko da beti.

ERAKUSKETA

Aurkeztutako lanen kopuruaren arabera, parte hartzen duten argazkien aukeraketa bat ikusgai jarriko da Itsasondoko Kulturgunean (udaletxean). Azaroraren 15etik aurrera.

JABETZA

Itsasondoko Udala geratuko da saritutako lanekin. Horrela bada, lanak erakutsi eta kopiak atera ahal izango du eta inork ezin izango dio egile-eskubideak ordaintzeko eskatu. Lanak Udalaren kultur ondare izango dira eta inork ezin izango ditu saldu edo erosi.

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. Artikulua betez, jakinarazten dizugu sartuko dituzun datuak Kultura Saileko lehiaketan fitxategian artxibatuko direla, helburua deitutako lehiaketako izangaiak ezagutzea dela, informazio-jasotzaileak Itsasondoko Udaleko Kultura Saileko langileak eta arduradunak izango direla, eta fitxategiaren arduraduna Itsasondoko Udala dela (Kale Nagusia, 24).

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak goitik behera onartzen direla esan nahi du.

Bidali: argazkiak@itsasondo.eus
Argazkiak bidaltzeko epea: Azaroak 10 arte

